PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Erakundea: Uliazpi Fundazioa
Programa: 010 - "ULIAZPI FUNDAZIOA" Foru Erakunde Autonomoa

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoan adimen-urritasuna duten pertsonen eta beren familien Bizi Kalitatea garatzen laguntzeko zerbitzuak eta babesa eskaintzea. Arreta integral eta pertsonalizatua eskaini nahi du, eta irizpide etikoetan, eraginkortasunean eta berrikuntzan oinarrituta, gure erabiltzaileen, beren familien eta erakundeko pertsonen gogobetetasuna erdietsi, sozialki arduratsua den erakunde gisa jardunez.

Egoeraren diagnostikoa:

Azken azterketen arabera, biztanleria osoaren % 1,5ean dago adimen-urritasuna duten pertsonen prebalentzia, gizonen proportzioa % 57,4koa da, eta emakumeena % 42,6koa, Plena Inclusión-eko Espainiako iturrien arabera. Are gehiago, adimen-urritasuna eta laguntza premia handiak dituztenak adimen-urritasuna duten pertsonen (PcDI gaztelaniaz) % 6ra irits daitezke. Gipuzkoan, nabarmen ari da hazten zahartzen ari den edo dementzia prozesuan dagoen lagun kopurua adimen-urritasuna duten pertsonen artean. Gainera, askotan aldi berean gertatzen da adimen-urritasuna duen pertsonaren dementzia prozesua eta bere gurasoena.

Azkeneko urteotan, nabarmen hasi da bizitza osoan ahalmen handiarekin bizitza oso independientea egin duten pertsonen 24 ordutako sustengu zerbitzuaren beharra. Uliazpiren egoitzetan hutsik gelditzen diren plaza gehienak talde multzo horretako erabiltzaileekin betetzen ari da nagusiki.

Bestalde, adimen-urritasuna duten adingabe eta gazteek etxebizitza eta, batez ere, aldi baterako egonaldi zerbitzuak eskatzen dituzte, familiek eskatzen dituzten laguntza kopurua ere hazi egin delako. Kasu batzuetan, GFAren tutoretzapeko pertsonek ere eskatzen dituzte etxebizitza egonkorrerako zerbitzuak.

Gastuei dagokionez, Uliazpik langileen ordezkariekin hartutako zenbait akordioren eta martxan dauden negoziazioetan aurreikusitako ondorio ekonomikoa (lan txandak, GFArekiko homologazioa etab.) azken urteotako inflazioaren bizitza kostuari gehitu behar zaio; azken finean Uliazpiren egoitzetako zerbitzua eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan ematen baitira. Lan-araudi azkeneko aldaketek ere eragindako ondorio ekonomikoak ere kontuan hartu dira.

Adingabeentzako aldi baterako egonaldiak aurreikusten dira asteburuetan, Pazko astean, abuztuan eta Gabonetan.

Uliazpik emandako zerbitzuek eta laguntzek NBEren 3. eta 10. helburuak lortzen laguntzen dute.

Beharraren deskribapen xehatua:

Adimen-urritasuna duten adingabe eta gazteentzako etxebizitza. Adimen-urritasuna duten helduentzako etxebizitza, zerbitzu integrala izango duena. Eguneko zentroa adimen-urritasuna duten gazte eta helduentzat. Aldi baterako egonaldi zerbitzuak adimen-urritasuna duten adingabe, gazte eta helduentzat.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako adimen-urritasuna duten pertsonak eta beren familiak

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

- Langile publiko arduratsuak.
- Baliabide ekonomiko eta ondare baliabideak.
- Kudeaketa eredua.
- Ezagutza, konfiantza eta berrikuntza.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Prozesu Estrategikoak: Prozesu Estrategikoa, Ekonomia eta Ondare arloko Kudeaketa Prozesua, Pertsonen Kudeaketa Prozesua.
- Eragiketa Prozesuak: Laguntzak Antolatzeko eta modu pertsonalizatuan aplikatzeko Prozesua; Familiekin Harremanak izateko Prozesua.
-Laguntza Prozesuak: Etengabeko Hobekuntza Prozesua, Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Kudeaketa Prozesua.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Adimen-urritasuna duten adingabe eta gazteentzako etxebizitza.
- Adimen-urritasuna duten helduentzako etxebizitza integrala.
- Eguneko zentroa adimen-urritasuna duten gazte eta helduentzat.
- Aldi baterako egonaldi zerbitzuak adimen-urritasuna duten adingabe, gazte eta helduentzat.

Programaren arau esparrua:

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legea; Gizarte Zerbitzuen 15/2008 Legea; Uliazpi sortzeko 8/1989 Foru Araua, zerbitzuetako erabiltzaileek ekarpen ekonomikoak egiteari buruzko Foru Dekretua; zerbitzuak eskuratzeari buruzko Foru Dekretu.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

Urteko helburua: Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erreferentziazko langileen figura duten zerbitzuen kopurua	Kopurua	>=	2,00	2,00	3,00	3,00
Egoitzetara sartzeko pertsonen itxarote zerrenda	Kopurua	<=	945,00	945,00	890,00	890,00
Zaintza ekosistemetan dauden ahulak edo mendekoak diren Gipuzkoako biztanleen ehunekoa	Ehunekoa	>=	68,90	68,90	67,00	67,00
Plaza kopurua	Kopurua	>=	550,00	540,00	540,00	528,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Desgaitasuna duten pertsonei zuzendutako zerbitzuak indartzea.



% 89,71



% 10,29

	Ordainketa kredituak	Konpromiso kredituak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**29.345.088,50**			**2027/01/01**	**2028/12/29**	
1.1 Ekintza						

	Ordainketa kredituak	Konpromiso kredituak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Adimen-urritasuna duten personei etxebizitza zerbitzua ematea	19.280.230,85			2027/01/01	2028/12/29	
1.2 Ekintza Adimen-urritasuna duten persona helduei aldi baterako egonaldiak zerbitzua ematea	953.847,44			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Adimen-urritasuna duten persona helduei aguneko arreta zerbitzua ematea	9.111.010,21			2027/01/01	2027/12/31	

ENTITATEAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Gizarte Zerbitzuen Maparen ezarpena bultzatu eta jarraipena egin

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Adimen-urritasuna duten adingabeentzako eta gazteentzako aldi baterako egonaldi kopurua	Kopurua	>=	540,00	500,00	500,00	500,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Gipuzkoako gizarte-baliabideen sare publikoaren eskaintza bilakaerara egokitzea.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Konpromiso kredituak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**555.911,51**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Aldi baterako egonaldi zerbitzua garatzea adimen-urritasuna duten adingabe eta gazteentzako	555.911,51			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Zainketa egokiak jasotzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Adimen-urritasuna duten pertsonak, tradizioz, familia-ingurunean zaindu izan dituzte eta zaintzen dituzte zaintzaileek (amak, arrebek...).

Uliazpiko zerbitzuek eskaintzen dituzten laguntzak ez zaizkie zuzentzen adimen-urritasuna duten pertsonei bakarrik, baizik eta baita haien familiei ere, eta beraz, familiako zaintzaileengan duten eragina oso garrantzitsua eta epe luzerakoa da.

Horregatik arlo hau bereiziki garrantzitsua da gure erakundean.

Ondorioz, 2026. urteko azken lauhirerokoan Uliazpiren Berdintasun Planarena garapenari bultzada bat eman zaio eta Diagnostikoa prestatzeari ekin zaio berdintasunari buruzko egoera zehatza ezagutzeko.

2027rako garatzen ari den Plan hori ekintzez zehaztea eta beraiek gauzatzen hastea aurreikusten da.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Aurrekontu programa honek, Garapen Jasangarriko Helburu hauek lortzen laguntzen du:

1.3 Adimen-urritasuna duten pertsonei laguntza zerbitzuak eskainiz beraien bizi kalitatea ahalik eta hoberena izan dadin,

Ildo horretan, lehengo urtean egindako ahalegin berezia gauzatzeko asmoa dago, sortutako bi mediku plazak betez eta, modu horretara, osasun-arloa sendotuz..

5. Genero Berdintasunean laguntzen

Uliazpiren laguntza zerbitzuek ahalbidetzen dute tradizionalki feminizatua izan den zaintzaren esparruan aukera berriak garatzen.

Kuantifikazioa: 29.901.000,01 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	1-Pobreza desagerraratzea Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.	**26.881.542,72**	
Helburua	1.3 - Gipuzkoa mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030. urterako, pertsona pobre eta kalteberen babes zabala lortzea	26.881.542,72	
	Ekintza lerroak		
	Desgaitasuna duten pertsonei zuzendutako zerbitzuak indartzea.	26.325.631,21	
	Gipuzkoako gizarte-baliabideen sare publikoaren eskaintza bilakaerara egokitzea.	555.911,51	
	5-Genero berdintasuna Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	**3.019.457,29**	
Helburua	5.4 - Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera	3.019.457,29	
	Ekintza lerroak		
	Desgaitasuna duten pertsonei zuzendutako zerbitzuak indartzea.	3.019.457,29	
Guztira		**29.901.000,01**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Konpromiso kredituak / Créditos compromiso				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	17.707.000,00	18.569.000,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	7.193.000,00	8.888.000,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**24.900.000,00**	**27.457.000,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	941.000,00	2.344.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**941.000,00**	**2.344.000,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	100.000,00	100.000,00					
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	**100.000,00**	**100.000,00**					
Guztira / Total	**25.941.000,00**	**29.901.000,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Konpromiso kredituak / Créditos compromiso		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	18.179.051,00	389.949,00			18.179.051,00	389.949,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	8.733.356,50	154.643,51			8.733.356,50	154.643,51
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**26.912.407,50**	**544.592,51**			**26.912.407,50**	**544.592,51**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	2.334.781,00	9.219,00			2.334.781,00	9.219,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**2.334.781,00**	**9.219,00**			**2.334.781,00**	**9.219,00**
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	97.900,00	2.100,00			97.900,00	2.100,00
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	**97.900,00**	**2.100,00**			**97.900,00**	**2.100,00**
Guztira / Total	**29.345.088,50**	**555.911,51**			**29.345.088,50**	**555.911,51**

Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos	2026	2027	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	3.156.000,00	3.410.000,00	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	21.594.000,00	23.967.000,00	
5. ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES	150.000,00	80.000,00	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**24.900.000,00**	**27.457.000,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	941.000,00	2.344.000,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**941.000,00**	**2.344.000,00**	
8. AKTIKO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS	100.000,00	100.000,00	
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	**100.000,00**	**100.000,00**	
Guztira / Total	**25.941.000,00**	**29.901.000,00**	